




CATALUNYA



Fidel Sáez de Heredia Herce

BESIBERRIKO ERTZA

HERENSUGEAREN BIZKARRAREN GAINETIK



EDILEA MARTIN GAMENDEA

PIRINIOETAKO ekialdeari begira, Besiberriek azken aukera bat ematen digute era horretako gandor batez gozatzeko. Hortik aurrera hiru mila metrotik gora Pica d'Estatseko ertza aurkitzen dugu bakarrik. Baina, honek ez du zer ikusirik Besiberrikoarekin, askoz errazagoa da eta. Pirinioetako hiru milako ertzen artean Besiberrikoa ez da oso zaila ezta erraza ere. Ertainekoa izanik, ezin dugu ahaztu, goi mendian gaudela eta rappela eta *ensemble* mugimendua menperatu behar ditugula.

■ 2006 / 08 / 10

Aurretik hiru ordu eta erdiko bidaia. Aldi honetan neuri tokatzen zait autoa jartzea. Jakina da, autoa eramaten duenak musika ere aukeratzen du. Bidaia osoa eman dugu *The Crowned Mountainsen* arrakasta guztiak entzuten. Azkenean, kd irakurlea erretzeko zorian dagoela iritsi gara Viehara. Oraindik, Vielhako tunela iparraldetik zeharkatu behar da. Hegoaldeko sarreratik bi kilometrorra kamioietarako

■ Sallesen arrakalako bigarren rappela. Atzeko aldean lehenengoa ikus daiteke

parkina ikusten da. Beheko aparkalekuan, errekararen ondoan utz daiteke autoa. Errekaren beste aldera Conanglesko aterpea dago.

Gure asmoa gaur Estayneteko aterperaino iristea da han bertan lo egiteko. Gutxi gorabehera bi ordu eta erdiko ibilbidea da. Aparkalekuan bertan hasten den pista bat basoan sartzen da hesi bat gainditu ondoren. Hamar minuturen buruan, gurutze batean, ezkerretara hartu behar da eta hortik denbora laburrera kartel bat topatuko dugu, Besiberriko Estanyetarako bide zuzena jakinarazten diguna. Bidea basoan zehar doa eta noizean behin bidezidorrez baliatzen gara poliki-poliki altuera hartuz joateko. Basoak izugarriko zuhaitzak ez ezik, magurdiak, ahabiak eta marrubiak ere eskaintzen dizkigu. Ibiltzen hasi garenez geroztik ordubete igaro da. Toki honetan, ur-jauziaren aurrean, badago zubitxo bat erreka zeharka dezagun. Hemendik aurrera, maldak ez dugu atsedetik emango. Aldapan gora bidea sigi-saga doa pinuen artean.

Batzuetan, esfortzu handia egiten ari naizenean, neure buruaren barruan mekanismo bat sortzen da nekea arintzeko: Behin eta berriro abesti bat entzun eta abesten dut.

*In your head, in your head
zombie, zombie, zombie*

Burutik kendu ezinik *The Cranberries*en *Zombie* abestia, jandako ahabien eragina ote da?

Azkenean, zubia zeharkatu dugunetik berrogei minutu pasatu direnean iristen gara Besiberriko aintzirara. Puntu estrategikoa da, Besiberriko ia ertz osoa ikus baitaiteke hemendik. Orain bidea lakuaren eskumako hegaletik doa. Benetan leku zoragarria da leku hau, zuhaitz batzuen ondoan kanpatzeko. Errekaren ezker geografikoko erriberatik abiatzen gara. Han urruti, harkaitz baten gainean, arranoen habia bailitzan, Estayneko aterpea ikusten da. Abuztua izan arren bakarrik gaude aterpean. Oso ondo horniturik dagoela esan beharra dago: hamaika ohe, larrialdietarako irratia, argindarra, etab. Halako aterpe gehiago behar du gure Pirinioak eta, garrantzitsuena dena, mendizaleok zaindu behar ditugu.

Oraindik lo egiteko goizegi denez, denbora pasatzen dugu Benasque aldeko tontorrek identifikatzen. Honekin batera, biharko bidea aztertzen dugu. Printzipioz, jendeak bide zaila hartzen du nahi gabe. Izan ere, Ipar Besiberri eta Canal de Rius artean dagoen leporaino zuzen-zuzen abiatzen dira mendizale gehienak. Gero konturatzen dira ertzean III+ graduko igarobideak daudela eta progresioa moteltzen da. Martin Besiberriko isurialde honetan lehenago egona da. Hori dela eta, bidea ezagutzen du eta biharko bidea nahiko argi daukagu. Ilunabarrean oheratu gara. Biharkoari buruzko pentsamenduak ditugu buruan irakiten. *Doctor Deseoren Abrázame* abestia entzuten dut.

*Cuando la copa de los sueños está vacía
Y miles de abejas jugando
en las tripas me roban las noches...*




EGILEA MARTIN GARMENDIA

■ *Estanyeteko aterpea arkaitz estrategikoaren gainean kokaturik dago*

■ 2006 / 08 / 11

Goiz jaikitzen gara egun osoa ondo aprobetxatzeko. Aterpetik ateratzen gara eta errododendroen artean egiten dugu bidea. Mugarriak ondo jarraitu, besterik ez dugu egin behar bide zuzena segitzeko. Bidezidor hau Avellaner leporaino iristen da. Une batean bidexka utzi behar da eta, aldapan gora, Ipar Besiberriantz abiatuko gara artez. Hormara iritsi baino lehen komeni da erreferentzia hartzea. Kasu honetan, ezkerretik eskumara doan tximinia da bilatu behar duguna. Tximinia honek, sarreran, landare batzuk ditu. Detalle hau ezin da oharkabean utzi, baina hau gutxi izango balitz, ertzean tximiniaren bertikalean arrakala nabarmena ikusten da. Hala eta guztiz ere, gu pittin bat ezkererago joan gara eta sokaldi labur bat egin ondoren, bide arteza hartu dugu. Hasierako tximinia kanal bihurtzen da ondoren. Gero, ertzetik beretik gora eta behera mugarriak jarraituz, Ipar Besiberriko tontorreraino igoko gara.

Poliki-poliki aurrera egiten dugu ertzetik. Urrutira falta zaizkigun tontorrek ikusten dira, atzeko aldean, mendien artean Estany de Mar eta beronen uhartetxoa daude. Eguneko lehendabiziko rappela Oliverasen arrakalan aurkitzen dugu, zortzi metrokoa edo.



MAPA NORDIK

Gure bideak herensugearen bizkarrezurretik jarraitzen du eskalada tarterik zailena topatu arte. Gure artean, txantxa moduan, "Txapeldunaren pasalekua" deitzen diogu. Izan ere, atzo, aterperako igoeran topatutako mendizale batzuek komentatu ziguten ertzeke zati honetan eskalatzailerik ez zirela "txapeldunak bezala". Ondorioz, izen horrekin bataiatu genuen ertz zati. Pare-parean horma bertikal samarra dugu eta bloke apropos batean montatzen dugu elkargunea. Lauzabost metro tente igo beharra dago. Gero, eskumarako zeharkaldia egin behar da, zati belartsu bat aprobetxatuz. Kontuz zeharkaldi honekin, III+ gradura iristen da eta. Mattin doa lehendabiziko, pasaleku zaila atzean utzita, berriro elkargunea egiten du gandorrean. *Ensemble* segitzen dugu, jardunaldiko bigarren rappelera heldu arte. Hau Sallesen arrakalan kokatzen da eta bi zatitan egin ohi da, 10 metrokoa bakoitza.

Arrakala pasatutakoan, korredore bat hartzen dugu ertzean jarraitzeko. Konturatu ere gabe *ensemble* pasatu dugu hirugarren arrakala. Dena dela, han bertan dago rappelaren instalazioa nahi duenarentzat. Zailtasunak atzean utzita, Ipar Erdiko Besiberriera eta Hego Erdiko Besiberriera iritsi gara, hurrenez hurren. Azken honetan atsedendia hartu dugu, bost ordu eman baititugu mugitzen. Bitxikeria moduan, esan dezagun gure GPSen arabera bi metro falta zaizkiela mendi hauetako hirurok metrora ailegatzeko.

Hego Erdiko Besiberritik jaisteko bi aukera ditugu. Bata ertzetik zuzen-zuzen beharrezkoa da eta bestea, guk egingo duguna, mendebalderantz jotzea. Aldea ez da oso handia

■ *Ipar Besiberriko tontorretik gertu ateratzen da ertzerara. Atzean Estany de Mar ikus daiteke*



EGILEA MARTIN GARMENDIA



EGILEA MARTIN GARMENDIA

■ Eskaladaren igarobiderik zailena. Eskalatzaile hauek zuzen-zuzen joan ziren etzeraino. Guk, ordea, bigarren eskalatzailea dagoen tokitik eskumarako zeharkaldia egin genuen arrail belartsua aprobetxatuz

eta, batetik zein bestetik, azkar heltzen da Pas de Trescazes izeneko lepora. Hau atzean utzita, Hego Besiberriko bide arruntari ekiten diogu baina, harkaitza ustel samarra dagoenez, zailagoa izan arren ezkerretara goaz haiz sendoagoaren bila.

Hego Besiberriko tontorra jendez gainezka dago. Estany's Gelatseko alderantz jaistea komeni da, modu honetan ertzeko zatirik malkartsuena ekiditen baita. Dena dela, bi pasartetan kontu handiz ibili behar da destrepea egiteko. Une batean ekarritako bidea Avellaner lepotik datorrenarekin elkartzen da. Orain, Comaloforno tontorretik gertu dagoen arrakalara iritsi behar da. Ez da zaila eta hortik aurrera oinez iristen da gailurrera.

Comalofornotik parez-pare ikusten da eguneko azken helburua, Passet gailurra, alegia. Metroak galdu behar dira arrakala batera ailegatzeko. Puntu honetan eta gidaliburu batzuen arabera, zuzen-zuzen eraso behar da gailur lerroa.

Bost metro igo ostean sabai batekin egiten dugu topo. Hau eskumatik saihesten da. Nahiz eta zaila izan ez, igaroleku horrek badu arriskua. Ondoren, gandorretik jarraitzen da, tontorreko harripila aurkitu arte. Gailur honetan, daramatzagun bi GPSe 3002 metroko altuera markatzen dute.

Jaitsieran, berriro sabaitik ez pasatzeko, hamabost metroko rappel bat prestatu dugu. Ez da oso tentea eta kanal batean amaitzen da. Berriz ere igoerako arrakala erdiesteko, bost bat metro igo behar dira ondoren. Gure ustez, bariante hau askoz errazagoa da. Arrakalan bertan soka gorde daiteke, ez baita gaur berriro erabiliko.

Igoeran ikusitako bidea hartu behar da Avellaners lepora heltzeko. Horretarako, ez da bat-batean altuera galdu behar. Aldiz, geldiro eta diagonalean mugarri batzuk jarraituko ditugu lepora heltzeko. Behin lepora erdietsirik, ikuspegia ez da oso atsegina. Izan ere, harri txiki eta legarrezko malda tentetik jaitsi behar da. Zati hori atzean utzita, *plateau*

harritsuan sartzen gara. Hemen ez dago inolako biderik eta aurrera egiteko saltoka ibiltzea da onena. Azkenean, bide eza-guna hartzen da eta di-da batean iristen gara Estany de Besiberri.

Bide ezagunetik iritsiko gara autora. Hamahiru ordu igaro dira ibiltzen hasi ginenetik. Errekan freskatzen utzitako Coca-Cola hartu eta etxera bueltan musika jarrita, Vielhako tunelean sartzean *The Crowned Mountainsen* abestiak entzuten dira kd-an.

I go to the future riding on the back of the dragon.

Gu ez gara etorkizunera herensugearen gainean joango baina, egun batez behintzat, gozatu ahal izan dugu Besiberriko bizkarrezurrera igota. □

■ Martin Sallesen arrakalako lehenengo rappelean



EGILEA FIDEL SÁEZ DE HEREDIA

FITXA TEKNIKOA

- **Eskalatzaileak:** Martin Garmendia Donostiakoa eta Fidel Sáez de Heredia Herce Hernanikoa.
- **Data:** 2006ko abuztuaren 10 eta 11.
- **Nola iritsi:** Donostiatik A-64ko autopista hartu eta 17garren iteeran (Montrejeau-Luchon) utzi behar da. Jarraian, D-33a hartu behar da eta bukatzeko N-230a Lleidako norabidean segitu behar da Vielhako tunela zeharkatu arte. Conanglesko aterpearen ondoan aparkalekua dago.
- **Ura:** Aterperako igoera osoan eta gero aterpearen inguruan badago. Ertzean, noski, ez dago eta zaila da elurtegirik aurkitzea.
- **Materiaia:** Ertz batean ibiltzeko ohikoa dena, hau da, baga luzeak eta laburrak, fisurero ertain batzuk eta berrogei metroko soka, batez ere rappelak egiteko.
- **Datu erabilgarriak:** Lehenengo eguna: Aparkalekutik Estanyeteko aterperako igoerako desnibela 665 mkoa da, 2,30 ordu alegia. Bigarren eguna: Estanyeteko aterpetik

Besiberriko ~~arrakala~~ eta aparkalekurako jaitsierak ~~gorako~~ 1000 mko desnibela du eta beheerako 1670mkoa, hau da, 13 bat ordu.

• GPSrako way point nagusiak:

WAYPOINT	UTM X	UTM Y	UTM Z
Aparkalekua	316935	4720423	1532
Estanyeteko aterpea	320293	4719234	2200
Hego Besiberri	321630	4717984	3030
Comaloforno	321781	4717725	3033
Passet	321715	4717511	3002

- **Erabilitako bibliografia:** CAPDEVILA, M. Los tresmiles en 30 jornadas, Martínez Roca, Barcelona, 1997. ALEJOS, L. De los Besiberis al Peguera, Rutas Pyrenaica nº 7, Euskal Mendizale Federakundea, Bilbo, 1987. ANGULO, M. Pirinioko 1000 igoera, IV-Bielsatik Aranera, Elkarlanean, Donostia, 1998.
- **Eskerrak:** Arantza eta Naroari, lapurtutako denboragatik. Martini, edozein zalantza argitzeko beti prest egon delako. Xabiri, bere zuzenketengatik.